

KULTURA

sortzen dugu

BILBAO 700 • III MILELIUM

Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara. Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia. Hau da gure kultura.

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk** =

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**berria**

Lege gordailua: BI-85-98  
ISSN: 1577-9025

2002ko URTARRILA  
40. zkia. DOHAIN



SEI IZAR KROSA,  
MAHATSORRION  
LASTERKETA HERRIKOIA

*Sorgintxulok  
hiru urte bete ditu*

*Xabier Gomez  
triatleta mahatsorria*

*Jabi Calleren  
liburu berria*

**Algis Arlauskas**  
**"Euskal kulturaren  
dena dago"**



## *Egiritako emakumeak eta umetxoak*

*Eulalia Abaitua zanak egindako erretratuen artean ez dira gitxi familiei eginekoak. Hona hemen bat. Ez dekogu datu larregi, egia esanda. Egirleta edo Santo Domingo ganekoak dirana baino ez. Emakumeak eta umeak agertzen jakuz atzean etxe baten bentanie dekoiera. Andra batek buru ganean plazara produktuak -arrainak ete?- eroateko otzara deko. Beharrean geldialditxo bat egin eta zasti! Eulaliak argazkia egin eutsen. Eta horri esker ehun urte geroago hemen dagoz, geugaz.*

Eulalia Abaituaren 'Gure aurreko andrak' liburutik hartu dogu argazkia. Euskal Museoak argitaratuta.



▶ Iritzia .....	4	▶ Mahatsberriak .....	20
▶ Sorgintxulo 3. Urtea .....	5	▶ Hezkuntza .....	24
▶ Begoña eta Euskerea .....	8	▶ Kirolak: Mikel Alvarez. . .	26
▶ Xabier Gómez "Ironman" .....	10	▶ Mendi Ibilbidea .....	27
▶ Santutxuko Herri Krosa .....	12	▶ Jabi Calle .....	29
▶ Elkarrizketa: Algis Arlauskas .....	15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	30
▶ Inkesta .....	19	▶ Hileko Argazkia .....	31

Lapurren ganiien eitten doskue berba Bertonekoak oraingoan. Ta pentsetan dot hariiek direzela lapurrek, lapur abilek gero! Ezpabere, nondik atara daurie dirue Bertonek debalde emoteko? Lapurrek edo estraperlistek, ze iguel egin daurie pezeta bakotxagaitik euro bat eitten dauen makinie asmau. Edo alperrak iguel, pezetatik eurora pasatu ez eittearren debalde emon, baie horretarako eukin ein bier da, ze eukin barik ezin lei alperra ixen. Begoñeko lehengo lapurren ganiien eskribidu doskue, ta seguruenik honeik ez daukie hareiri inbidxe eukituko ezer bere. Ze hareik jeneralien txakur txiki batzuek baino ez euriezan ostuten, ta lantzien-lantzien behin

iguel txakur handiren bat edo mangauko eurien, baie honeik errebestie eitteko eta danori debalde emoteko txakur handi asko atrapau bier dittuez.

Hamen pentsaten dogun baino diru gehidxao dabil ba: rusoak bere euskaldunek eitten dire, zeozegaittik ixengo da. Bestie Hawaire karran joateko bere dirue bier da.

Ez dakitt ba, baie inbestigaten hasi nez aber Bertonek atzien nor dabilen, ze honeik gauzok ez direz naturalak. Hurrengo numeroetan kontako dotzuet hamer zer pasetan dan. Zuek porsikaso leidu eixue, aber zeuek bere zeozer barruntaten dozuen. Hamen ez dago jenero garbirik...

## "AVRIL" MENDIAREN ESANGURAREN INGURUAN



Badogu Begoñako lurraldean mendi bat begoñatar eta abandotar guztiok aspaldi ezagutzen doguna: "Monte Avril" erderaz deritxaguna. Mendi hau 383 metro garai da, eta Derio eta Zamu-

dioko udalerriaz egiten dau muga. Mendiagaz batera badogu bide bat, Zabalbide kaleko Jesusen Bihotzaren ikastetxe ongilean hasi eta mendiaren barneraino heltzen dana.

Saiakeratxuen sail honetan beti izan dot ardura azaltzea zein dan Begoñako eleizatean dagozan toki-izenen jatorria. Kasu honetan ohar bi egin behar dira, garrantzitsu diranak:

1. Izena ez da \*Abril, jende askok uste dauan legez, ezik izena Napoléonen gudarostearen jeneral batena da: Jean-Jacques Avril (1752-1839); berau Bizkaiko gobernatzaila izan zan 1808. urtetik 1810era. Bide batez, esan geinke, gobernatzaila honek auzi bat erabili ebal Frai Bartolome Santa Teresagaz, eta Markinako komentuko karmeldar etxe-barritarra kartzelaratu nahi izan eban.

2. Izen honek argi izten dau zelán kanpoko izen batek lekua kentzen deutson bertoko toki-izenari, eta etxekoa ezkutatu. Izan be, mendi horrek badau euskal izena, Bizkaiko Foru Aldundiak babesturiko Patxi Galé idazlearen Bizkaiko Gailurren Katalogoa liburuan ageri dana, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren [http://web.bizkaia.net/Kultura/Euskara/eu\\_euskara.htm](http://web.bizkaia.net/Kultura/Euskara/eu_euskara.htm) helbide elektronikoan ageri dana. Izan be, badira beste izen bi erabilten ziranak: "Biribil" eta, duda barik, erabili beharko litzatekeena: "Itxurritxualde".

Saiakera honen helburua beteko litzateke aurrerantzean ITURRITXUALDE toki-izena erabiliko balitz, ezik gure toki-izenik zaharrena indartuko geunke.


GOTZON LOBERA REVILLA

**Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



## BEGOÑAKO IGOGAILUA

Ibaizabaleko ibarraren eta Mallo-nako muinoaren arteko altura alde nabarmenak, 47 metro, artean maila eta eskailera neka-garriak erabiliaz saihestuta, hiri igogailua eraikitzen bultzatu zuen. Aldapa gogorreko hirietan oso konponbide ezaguna da eta Bilbon bertan beste alderdi batzutan ere atondu dira horrelako igogailuak.



Begoñako igogailuaren berezitasuna bere bi zatietan datza: kutxa bertikal bat igogailu-jaitsegailua bere baitan gordetzeko eta zaldaina bide bat igogailutik Mallonako muinora heldu ahal izateko. Izan ere, igogailua Esperantz kaleko etxe lerrotik bertatik ateratzen da gorantz eta, ondorioz, alde dago gero, goian, igogailuaren irteera eta Mallona bitartean. Bi zati horiek zementuzko egiturak dira eta haiei esker joan daiteke oinez modu erosoan.

Igogailua 1943-44 urteetan diseinatu zuen Rafael Fontán arkitekto finak. Eraiki 1949an eraiki zuten. Hirian erraz ikusten den osagaia da eta, berez, Bilboko paisaiako mugarrietako bat bilakatu da.

IÑAKI URIARTE

## BERTON MUSUTRUK

Laugarren urteurrenaren ateetan gaudenean erabaki garrantzitsua hartu du BERTONek. Hemendik aurrera, 'BERTON' aldizkaria dohain banatuko da. Hartu nahi duen guztiak eskatzea besterik ez dauka. Deitu gure telefonoetara, igorri mezu elektroniko bat edo bete aldizkarian bertan dagoen kupoia eta bidali postaz. Etxean hartuko du aldizkari mahatsorri euskalduna. Horrela gure lana bazter guztietara zabal dadila nahi dugu.

Orain arte harpidedun izan zireten guztiak, mila esker. Zuek barik ez zen BERTON existituko. Hemendik aurrera ere etxean hartuko duzue aldizkaria orain arte legez.

Hala ere, 'BERTON'ek badauka oraindik ere diru laguntzen beharrik. Horregatik, pozarren hartuko ditugu egin nahi zaizkigun aportazioak. Bide luzea dauka-gulako oraindik ere gure begien aurrean.

# SORGINTXULOREN HIRUGARREN URTEBETETZEA

## Gazte mahatsorriek gero eta esparru gehiagotan eskaintzen dituzte aukera alternatiboak

Testua: Arrate Diez  
Argazkiak: Iñigo Azkona eta Sorgintxulo



*Orain hiru urte jende guztiarentzat erreferentzia izango zen lokal baten beharri aurre egiteko Karmeloko zinemako eraikina okupatzeari ekin zioten mahatsorri gazte batzuek. Harrez gero, Sorgintxuloko gaztetxea kolektibo indartsu bihurtu da Santutxun, eta bide horretan jarraitzeko asmoa da bertara hurbiltzen den ororen intenzioa. Hainbat jende inplikatu da guztiontzat mesedegarri diren lokal hauek apaindu, egokitu eta zaintze arduratan. Hiru urte geroago hortxe dirau, kementsu eta sasoiz beterik, eta ospatu ere egin dute, urtarilaren hasieran, ekitaldi sorta polit baten bidez.*

ARGITARATZAILA:  
Batana Batu Kultur Elkartea  
ERREDAKZIOA:  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta:  
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA  
Hektor Ortega  
ERREDAKZIOA:  
Arrate Diez,  
Joana Etxebarria, Irune Berro, Iratxe Ruiz,  
Erdoitza Martínez  
Unai Cuevas  
ARGAZKIAK:  
Iñigo Azkona eta Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Iñaki Berastegi,  
Joseba Barrenetxea  
KOLABORATZAILAK:  
Jaione Letamendia, Itxaso Perez, Alberto Ugarte,  
Iñaki Gaminde, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola, Iñaki Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,  
Benito Fiz  
ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:  
Koldo Urrutikoetxea,  
Zuriñe Martínez  
LEGE GORDAILUA:  
Bi-85-98  
ALE KOPURUA:  
1.200

**Sastrea EDRO**  
IRUDIA SORTZEN DUGU BILBO  
Santutxu kalea, 46  
Tfnoa: 944 333 935  
Santutxu kalea, 37  
Tfnoa: 944 128 714  
www.bilbaoweb.com/Spedro  
E-Mail: iban.lopez@navigalia.com


**HORTZ KLINIKA GERMÁN BERGARETXE**  
GABRIEL RESTI, 30 4. G TXURDINAGA  
94 412 82 74

**CYBER TIME**  
Ordenagailua gurea da ideiak, zureak  
Sarean jotzeko Internet Inprimaketa Eskanerra Datu grabaketak  
Aita Pernet, 1  
48004 Santutxu Bilbo  
Tfnoa/fax: 94 459 74 06  
E-mail: cyber-time.euskalnet.net  
http://www.cyber-time.euskalnet.net

Urte berriarekin batera, urtarri-laren 5ean Sorgintxuloren hirugarren urteurrenaren ospakizuna izan zen Santutxuko kaleetan zehar. Jaialdia eguerdi aldera hasi eta egun osoan hainbat ekitaldi egin zen. Eguerdiko 12etan Atarrabiako zanzantzarrak eta Sorgintxuloko gaitero eta perkusio taldearen musikaz lagunduta auzoko tabernetatik poteoa egin zuten. Ondoren, arratsaldeko 3etan gaztetxean bazkaria antolatu eta bertara 85 pertsona hurbildu ziren indabak, entsalada eta postrea eta kafea dastatzeko.

Egun hartako bazkaria Sorgintxuloko gazte batzuek prestatu zuten eta goizeko bederatzietatik ibili ziren lapiko artean jateko goxoa egiten. Bazkalostean, mozorrotutako ludotekan hiru urteko umeen jaialdi sinbolikoa ospatu zuten Sorgintxuloren urtebetzearen omenez. Arratsaldeko lehen orduan irlandar mutiko batek bakarrik egin zuen eta bertara hurbildutako guztien barregurak eragin zituen. Geroago, Sorgintxuloren orain arteko ibilbidearen erakusgarri modura, egindako hainbat ekimenen laburpen bideoa aurkeztu zen.

Arratsaldeko 8:30etan hiru talderen kontzertua ikusteko aukera paregabea izan zen. Taldeetarikoa batek Sorgintxulon bertan entsaiatzen du eta jendaurrean beren abilezia erakutsi ahal izan zuen. Jaialdiari amaiera gaueko ordu bietan eman zitzaion.



*Sorgintxulon zineak, ludotekak, liburutegiak, arte erakusketek, informatikak, antzerkiak, musikak eta bertsoek bere lekua daukate.*

### HIRU URTEREN MEMORIA

Sorgintxuloko gazteek hiru urte hauetan lortutakoa eta lortzear dauden erronkak bilduta, auzoko taldeei txosten bana eskaini diete. Bertan gaztetxearen ibilbidearen berri ematen dute, hasi zenetik eta gaur egun arte jende askoren ilusio eta esfortzuaz lortutakoa, hain zuzen.

Aintzineko Karmelo zinema egokitu eta orain emanaldiak igandero arratsaldeko seietan izaten dira. Horretarako berrikuntza asko egin dituzte, bideo proiektorea lortu edo pantaila eskegitzeko sistema berri, besteak beste. Honez gain, euskararen normalkuntzan laguntzeko Sorgintxuloko zinema AEK-ko ikasleentzat erreferentzia bihurtu da euskarazko filmen proiektzioarekin.

1999ko urriaren 22an inauguratutako liburutegiak ezinbesteko garrantzia du gaztetxearen bizitzan. Gela honetan liburu bilduma zabala kontsultagai egoteaz gain, poesia errezitaldiak, liburuen aurkezpenak, bertso saioak zein antzerki saioak egiten dira.

Ludoteka gela, gazte topagune bihurtzen da astean zehar. Bertan, bideo emanaldiak, filminak, eta erakusketak egoten dira, beste hainbat eskaintza kulturalen artean. Ostiral eta larunbatetan taberna zabaltzen da baina ezin da kontzerturik eskaini auzokideek Udaltzaingoari deitzen diotelako. Izan ere, udaltzainak bost aldiz agertu dira gaztetxean itxi behar dutela mehatxuekin.

Eragozpenak eragozpen, ekimen berriei ekiteko prest daude gazte mahatsorriok. Hilean behin "Herrira" plataformaren manifestazioaren ondoren pintxo dastatzea egiteko leku aproposa bihurtu da. Lortutako etekinak gainera, Santutxun dispersioak eragiten dituen gastuei aurre egiteko erabiltzen da.

Mahatserrian eta Bilbon oro har, musika taldeak entsaiatzeko lokal gutxi dago gazteen eskura. Arazo horri aurre egiteko, gaztetxean jendearen musika sormenari irtenbidea emateko musika gela ere badago. Egun hiru musika taldek entsaiatzen dute aipatu gela horretan.

### ERAKUSKETA ARETOA

Garai batean Karmeloko haurtzaindegia izandako gelan orain erakusketa aretoa dago, hemen nahi duenak artelaren erakusketa antola dezake eta leku aproposa da arte ederretako ikasleek beren lanak erakutsi ditzaten.

Antzerki taldeek ere badute txokoa Sorgintxulon, antzerki gela. Berau Txahal-aparta taldeak erabiltzen du eta Santutxuko antzerkizaleen topagune ere izan da.

Hiru urte hauetan informatikako ikastaroak antolatu dira gaztetxean dagoen informatika gelan. Ordenagailu berriak erosi eta zaharrak konponduz astelehen eta asteazkenetan ikastaroak eskaintzen dira. Honez gain, txistu, euskara eta eskulan ikastaroak ere burutzen dira.

Santutxuko bertso eskolaren elkar-gunea ere Sorgintxulon dago eta gaur egun gaztetxeak aldizkari bat ere kaleratzen du gaztetxearen ekimenen berri auzokoei emateko.

### ROKODROMOA SORGINTXULON

Gaztetxearen dinamikan sakondu nahian beste batzorde berri bi sortu dira Sorgintxulon. Bata, rokodromoaren batzordea, horma bi eskalada praktikatzeko egokitzeaz arduratuko diren eskalatazailak osatzen dutena. Bestea, zinemaren berrikuntza batzuk egiteaz arduratuko da. Zinemaren ekimen gehiago egin ahal izateko telona, fokuak, soinu ekipoa hobetu... azken batean bertara hur-



biltzen diren guztiak gusturago egon daitezzen eta lokal hauen erabilgarritasuna handitzeko asmoz dagoen espazioa egokituko dute.

### GAZTETXEA UR BARIK

Karmelo Elizako abadeek Sorgintxulori ura moztu ziotenetik gabezi handia bihurtu da gazteentzat. Edozein konponketa egin ahal izateko Karmelo plazan dagoen iturriraino hurbildu behar dira ur bila eta horrela ez dago lan egiterik. Hala ere, oztopo guztien gainetik gazteek lanean jarraitzeko asmoa dute, ur barik bada ere.

Otsailean Sorgintxuloko lehen futbito txapelketa egingo du. Beraz, etxeko sofán etzanda egon beharrean futboleant jokat-

tu nahi duen orok aukera paregabea du txapelketan parte hartzeko. Honez gain, urtero egiten den Inauterietako bazkaria ere gaztetxean antolatuko da otsailaren 17an.

# GOJIAN S.C.L.

## LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

## ANDAMIO BARIK

### TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22



Pa...Ya **JO TA KE OTXARKOAGA**  
**EUSKALDUNDU ARTE**

**OTXARKOAGA**

*Pa...Yak baditu alternatibak*

Nekazari giroko gizarteetan bandolero edo lapurrak mitifikatzeko joera handia izan da. Batez ere gizarte-krisialdietan. Euretarik batzuen ospea guregana heldu da. Ingelesen Robin Hood existitu ote zen zalantzan badago ere, haren itzalak gaur ere lerden irauten du. Lapur onaren mitoa munduko bazter guztietan agertzen da eta, jakina, euskaldunen artean ere.


Gure bandolero batzuegatik esan izan da han eta hemen: 'Daukonari kendu, ez daukonari emon'.

Sarritan errealitatea ez zen horrelakoa, baina mitoak hala gorde zuen. Bizkaiko lapur handienek euren izena utzi dute behin betiko nekazarien kulturaren zizelkatuta: Larrabetzuko 'Patakon', Markinako 'Eskribanie', ... Eurak dira hainbat istorio eta ipuinen protagonista, beti ere injustiziak konpontzeko, esate baterako, ugazabari emakume alargun pobreaken errentaren dirua lapurtuaz andre gaixoari atzera emateko...

## Begoña eta Euskereea

*L. Larrazabal*

### Lapurrrak Begoñan



Campo Volantin eta Uribitarte uhartea XVIII. mendean.


#### BEGOÑAKO BAZTERRAK

Artxiobotan apur bat arakatuta, Begoñan ere lapurrak eta bandoleroak bazebiltzala ikusten dugu. Eta bi izan ziren, batez ere XVIII. mendean eta XIX. mendearen hasieran, euren jardunaren eszenatokia. Artxanda mendia eta Begoñaibarra.

Garai hartan Bilbotik Txori-herrira joateko Artxanda mendira igo behar zen eta Egirleta -Santo Domingo- gainetik behera jaitsi hala Deriora nola Zamudio edo Sondikara. Hortik iristen ziren Uribe merindadeko bazter asko-

tatik Bilbora zihoazenak, baita Bermeotik arrain freskoa eramaten zutenak ere. 1711 urtean Bizkaiko Korrejidore Juan Valcarcel Datok inguru horretako lapurrak atxilotzeko agindu zuen. Izan ere, Korrejidoreak berak esan legez, "en el monte de Santo Domingo jurisdicción de la anteiglesia de vegoña y otros de las repúblicas sicunvezinas andan diferentes cuadrillas de ladrones vagamundos y salteadores de caminos haciendo robos y otros delitos a los pasaxeros y a otras personas en otros parajes".

Lau lapurrez osatutako talde baten atzetik ibili ziren baina gizon susmagarri bat baino ez zuten harrapatu.



Bilbo XIX. mendearen hasieran. Zabalbide eta Mallonako kaltzadak Begoñatik Santo Domingora doaz.

Lekuko baten arabera, lapurrak bide ondoan zelatan paratzen ziren eta bidaiariak pasatzerakoan sastraka arte-rik atera eta dirua edo jeneroa lapurtzen zieten, "en especial a diferentes personas que han benido a esta villa a bender pescado fresco". Bertso zahar batek bandolero baten gainean dioenez,

*Bidean aterata, emateko poltsa  
Kendu behar niola, bestela bihotza*

1711ko lan horiek ustelak suertatu ziren. Eta arazo sakonago baten emaitza izanik, bandoleroak gero eta ugariago zebiltzan hala Euskal Herri osoan nola gure bazter mahatsorriotan. 1760ean Bizkaiko teniente orokor Francisco Rojok -Korrejidorearen bigarrena- bi gizon makiladun bialdu zituen inguru horietara. Zergatik? "En el monte de Artxanda y camino real que dirije de esta villa [Bilbao] a las anteiglesias de Sondika, Lujua, Erandio y otras algunas personas saltean de improviso a los viandantes que transitan por dicho camino y les roban y quitan con violencia el dinero y demás que traen consigo, golpeándoles y haciendo otras extorsiones precisando a los pasajeros a esperarse unos a otros y juntarse muchos por el temor con que se hallan para transitar por dicho camino".

Bere aguazil biak, Sondikako baten laguntzaz, bila ibili ziren Artxanda gainean zegoen bentatik Izartzako

bentarainoko eremuak eta baso bazterrak miatzen. Jakin bazekiten handik lapurrak zebiltzana. Sosak eta merkantziak ohosteko gizon horiek "han salido algunos disfrazados y cubiertos los rostros con mascarar de papel" eta bide erdian paratuta lapurreta egiten zuten. Bilbotik hain hurre egon arren Artxanda aldean ez zegoen bidaideentzat ezelango segurtasunik.


Eta menditik ibai ondora joango gara. Izan ere, lapurrak egiteko bigarren bazterrik txukunena, itxuraz, Begoñaibarrako Campo Volantin zen. Bilbotik Deustura ibai ertzetik joian bide hori hamaika gertakarien tokia suertatu zen. XIX. mendearen hasieran San Agustin komentua -gaur egun Bilboko Udaletxea dagoen toki-hiriaren amaiera zen. Hortik eta Deustu bitartean paseo eder eta, gauzez, bakartia baino ez.

Hortaz, ez gaitu harritu behar inguru horretan lapurrak sarri egiten baziren. Zer edo zerren susmoa bazekien Deustuko abadea 1781 urteko gau baten Bilbotik bere herrirako bidean pistola bi aldean zeramala hasi zenean. Alferrik. Bide erdira atera zitzaizkion lapurrak eta dirua ez ezik pistolak ere kendu zizkieten. Berrogei urte geroago, 1820an, musikari itsu bi euren itsumutilekin Deustuko Arkotxako bentara (gaur egungo La Cava, Unibertsitate eta Salbe artean) joiazala hiru lapur bidean agertu eta itsu bati diru zorroa ohostu zioten. Estufa kaleko ahoan soldadu goarnizioa zegoen eta, itsuen aldarriak entzun ostean, erasotzaileetako bat hantxe bertan lotu zuten.

# Xabier Gomez triatleta mahatsorria

*Xabi da bera, Xabier Gomez, Santutxun orain dela 32 urte jaiotako euskaldun euskaltzale matzorritarra eta kirolzalea; parrandan edo jaietan inoz ikusi badozue Asapala edo Hordago txosnetan izango zan, hori bai edaten barik mostradoraren atzean zerbiduten, euskeraren alde bearra egiten.*

*Testua: Joseba Etxebarria  
Argazkiak: Berton*



Kontua da ixil-ixilik bada be laugarrena egin dauala aur-tengo Espainiako Triatloi Txapelketan, 30-34 urte bitarteko-koen kategorian. Murtzian egin zan, udagoienean, guztira 800 bat atleta parte hartu zeurien, gizonezko zein andrazko ta zarrak zein gazte kontaute, eta 1500 m. uger egin ostein 40km. ibili behar izan eban bizikletaz, ta amaitzeko 10 km. korrika, horixe da triatloia ta; hiru (tri) kirol horrek, uger-bizikleta-korrika, egitea, bata bestearen atzean eta orden horretan.

Egon badagoz klase diferenteak neurrien arabera : "laburra"n 750m. uger, 20km. bizikleta ta 5km. korrika egiten dira, "normala"n aurrekoaren bikotza ,1500m.-40km.-10km., berau da olimpiadetakoa, "luze"ak 2500/3000m.-80km.-20km. eta azkenik "Ironman", 4000m. uger, 180km. bizikleta eta 42km. korrika (maratoia).

"Beti gustatu jat deportea , eta praktikatu be egin izan dot, baina ez honelakoak oso gogorak zirala eritxi neutson eta, neuretzako oso fuerte, eta ez neban nere burua halako astokeriak eta egiten ikusten. Behin, kirol denda baten nagoela, koinziditu neban pertsona bategaz, ta berbetan

jardun genduen, bera biatloia egiten eban; harrezkero animatu nintzan ta hasi be, entrenetan ta abar, ta... holantxik!"

Prestaketa ez da makala, logikoa, baina berak pozik egiten dauz eguneroko entrenamenduak, hori bai, egun guztietan. "Egunero hiru ordu bat edo erabiltzen dodaz, zazpi egunetako hirutan edo bitan kirol bakar bat egiten dot, bizikletak,adibidez, denbora asko eskatzen daust eta batzuetan gehiago igual, beste lau-bost egunetan bi kirol batera, txandaka, astean zehar gimnasioa be egiten dot. Zelan ia gehienetan taldean egiten dodan ez naz ni aspertzen, disfrutatu egiten dot entrenamenduak egiten, niretzako ez da sufrimendua dibertimendua baino".

**Besterik egiten dozu?**

Udetan ibai zein itsas trabesiak.


**Ta gehienak irabazi be bai, entzun dogunez, ezta?**

Beno bai, bakizu ...entrenatuta egonda urte osoan, ba... beti lagutzen dau.

## GORPUTZA JAGON

Horrelako emaitzak lortzeko dieta be zaindu behar izaten da, logikoa da, berak diñosku batez be karbohidrato asko eta koipe gitxi, fruta eta berdura be asko eta noz edo noz geigarri naturalak, bitamina eta mineral aportazino handiago bear dauelako egiten dauen eguneroko ariketa eginda.

- Hori bai, parranda gitxi egiten dot, ia astirik bere ez dekot eta, entrenamenduak, kompetiziora joateko bidaiak... denbora gitxi gelditen jat, ta bera lo egiteko erabiltzen dot, noz edo noz botatzen dot baten bat,




a faldu ta lo. Konbento batean biziko balitz ... monjea, seguroa!

gitxitan, baina igerrri asko igertzen dozulako. Murtzian-ko Espainako txapelketan hartu neban parte, aurton, Bilboko jaiak amaitu ta bi astera, pentseton dot jaietako eragina barik, deskuiduan, postu hobeaigo bat lortu ahal izango nebala.

-Kirol honek ematen dau dala ... baina edonork egin deike, entrenatu eta zaindu ezker... edozeinek egin ahal dau!, marka edo postu onik igual ez baine egin egin bai, amaitu gure dot esan.

**Eta bentajak?**

Bentajak betikoak dira, kirolak dakarrena: forman egotea, osasungarria dala eta gaixorik sekulan bere ez zagozela, ondo sentiarazten zaitu...



# ASAPALA

## KULTUR ELKARTEA

**Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkartea egin guran gabiltza**

**Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!**

Hemen gagoz:  
Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
Tfnoa. : 944735448  
E-posta: asapala@eusnet.org



# SEI IZAR KROSA, MAHATSORRION LASTERKETA HERRIKOIA

MIKEL FERNÁNDEZ DE GAMBOAK ETA LOLI BENITEZEK IRABAZI ZUTEN

Testua: Unai Cuevas  
Argazkiak: Inigo Azkona




*Errege eguneko goizaren hitzordua da mahatsorri askorentzat. Ehunka batzuek korrika egiten dutelako. Beste asko, bide bazterrean begira daudelako, korrikalariei animoak emateko gogoz. Urtero-urtero Santutxuko Sei Izar Herri Krosa Santutxu, Bolueta eta Txurdinagako kale eta parkeak zeharkatzen ditu Santutxuko Auzo Elkartearen adoreari esker.*


Aurtengo Santutxuko XXIV. Sei Izar Herri Krosean, Mikel Fernandez de Gamboa eta Loli Benitez izan dira garaile. Urtero legez, aurtengo edizioan ere, korrikan edota errepide bazterretan korrikalariei adore emanaz, jende ugari bildu zen. Orotara, adin guztietako 800 partaide inguru aritu ziren, eguraldia ere, iaz bezala, lagun izan zutelarik.

Ohitura bihurtu denez, goizetik Santutxuko kaleek giro aparta bizi izan zuten urtarrilaren 6an eta lasterketaren hasiera gerturatzen zenerako, jendetza bildu zen errepide bazterretan kirolarien jarduna ikusteko asmoz. Eta hainbat partaide-

ren artean aurpegi ezagunak ikusteko parada egon zen. Honela, Tasio Erkizia politikaria edota Gaston anaiek ez zioten urteroko deiari uko egin.

Lasterketari dagokionez, Mikel Fernandez de Gamboak bosgarren kilometrorako aurrera jo zuen bere arerio guztiak aztean utziz, eta 7.500 metroak 24 minutu eta 31 segundu-





tan bete zituen. Bere atzetik, Urtuellako Jorge Azkona eta Laredoko Javier Corrales sailkatu ziren.

Emakumeen artean Loli Benitez bilbotarra nagusitu zen, Susana Bermejo eta Jone Etxebarria triatletaren aurretik.

Beteranoen mailan, Miguel Angel Lopez izan zen azkarrena eta Eduardo Gaston bigarren sailkatu zen.

**SAILKAPENAK:**

**Gizonezkoak:**

- 1. Mikel Fernandez de Gamboa.....24.31
- 2. Jorge Azkona.....25.08
- 3. Javier Corrales.....25.19

**Emakumezkoak:**


- 1. Loli Benitez.....31.27
- 2. Susana Bermejo.....32.44
- 3. Jone Etxebarria.....32.44

**Beteranoak:**

- 1. Miguel Angel Lopez...27.07
- 2. Eduardo Gaston.....27.40
- 3. Vicente Hurtado.....27.58

# Algis Arlauskas

*“Euskal kulturaren dena dago”*




*Algis Arlauskas (Mosku, 1957) Moskun formatutako zinemagile eta antzerkilaria dugu. Aita lituaniarraren eta ama bilbotarraren semea, 1990az gero Euskal Herrian bizi da. Azken urteotan Uribarrin eta orain Solokoetxen bizi da. Antzerki irakaslea da Deustuko 'Artebi' eskolan eta hiru dokumental luze egin ditu azken urteotan, eurentariki bi euskaraz. Arlauskasek euskal gazteok kanpora gutxiago begiratzeko eta euskararen munduari arreta gehiagoz erreparatzeko animatzen ditu. Berarekin euskaraz berbetan egon gara.*

*Testua: Hektor Ortega  
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Biktimenganako Laguntza Zerbitzua
Servicio de Asistencia a la Víctima

*Zeurekin gaude*



JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Giza Eskubideen eta Justiziaren Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia



**Moskun bizi zinenean, zertan ibiltzen zinen?**

Lehenengo antzerki ikasten ibili nintzen. Goi mailako antzerki eskolan egon nintzen, Moskun bertan, lau urtez, hamasei urtetik aurrera. Bukatu eta gero antzerki talde batean sartu nintzen eta bost urtez egon nintzen lanean aktore gisa. Eta paraleloki lan batzuk egin nituen zineman aktore gisa. Laburmetraiak, telebista lanak, ... dena. Ia hamabost pelikula edo laburmetraia. Baina nire ametsa beti izan da zinema zuzendaritza. Oso gogorra da horretan gazte hastea eta itxaroten nengoen esperientzia hartzeko. Hogeita zazpi urte neuzkanean goi mailako zinemaren institutuan sartu nintzen. Oso eskola famatua da, Eisenstein zuzendaria eta jenioak fundatuta XX. mendearen hasieran. 1983tik aurrera han egin nituen ikasketak eta gero bertan hasi nintzen klaseak ematen, zuzendaritza eta interpretazioa. Hala ere, inportanteena zen pelikulak egin ahal izatea. Dokumentalak, laburmetraiak eta telebistarako gauza pilo bat egin nuen. 1984tik aurrera Euskal Telebistarekin koprodukzio bat egiteko aukera sortu zen.

**Aurretik bazeneukan loturarik Euskal Herriarekin?**

Bai, asko. Nire sustraiak. Nire ama Bilbokoa zen, Errekalden jaio zen 1924an urtean...

**Eta gerra garaian Errusiara joan zen horietako bat zen?**

Bai. Nire aitite Arabakoa zen. Eta amama Errioxakoa. Aitite Salinas de Añanako, oso leku polit eta berezia. Senitarteko eta arbaso pilo daukat hemengoak. 1964an, zazpi urte nituela, hasi nintzen hona etortzen, bisitatzeko, kontaktua eukitzeko eta gure amama ezagutzeko. Aitite hila zen eta ez nuen ezagutu baina gure amama zena oso ondo ezagutu nuen, kontaktu berezi, hurbila eta hunkigarria euki genuen. Hemen, Urribarrin, etxe zahar eta txiki bat genuen, niretzat zoragarria. Gure amamaren eta gure amaren etxea! Ama bertan hazi zen eta Urribarriko landako eskolan ikasi zuen. Gu Bilbora etorri ginenean etxe horretan bizi izan ginen eta nire alaba eskola horretan bertan hasi zen ikasten. Niretzat oso gauza polita zen.

**Orduan ETBrekiko lan horrek aukera eman zizun zure mundu bi horiek, Errusia eta Euskal Herria, elkartzeko?**

Bai, hala da. Ez dakit nork esan zuen behin batean beste hizkuntza ikastea beste arima bat bereganatzea dela. Eta egia da. Nire arima banatuta dago. Eta egoera hau alde batetik aberasgarria da baina beste aldetik ezerosoa. Bi aulkitan eserita egotea bezalakoa da. Baina ondo dago aberastasunagatik: euskal kultura, gaztelaniazko kultura eta errusiar kultura. Eta, gainera, nire aita lituaniarra zen. Eta orduan nire familiako beste parte hori lituaniarra da. Ez nago txarto inon. Gustura eta primeran nago hemen, Moskun, Lituaniar eta Europa osoan. Europatar modelikoa naiz, ja, ja. Eta gustura sentitzen naiz. Adibide ona da jendeari azaltzeko kulturak, hizkuntzak, kontaktuak, harremanak... zenbat eta gehiago egin, hobeto. Hemengo jendeak, gazteak batez ere, nire ustez bidaia gehiago egin behar dute, mundua ezagutu eta


toleranteago izan. Toleranteago eta argitsuago.

**Formazioa Errusian hartu zenuen. Kultur maila handia zegoen, ezta?**

Bai. Sobiet Batasunaren garaian zinema, antzerkia, ballet eta kultura orokorrean bazeukaten babesia eta diru laguntza handia. Politikoki eta ideologikoki bageneukan problemarik: Gehiegi kontrolatuta zegoen. Adierazpen askatasuna nahiko murriztuta zegoen, guztiz ez. Zineman ederki nabaritzen zen. Antzerkian ere, baina antzerkia oso mundu berezia, intimo eta itxia da. Baina zineman, industria bezala, oso inbertsio handiak behar dira eta Estatuak kontrolatzen zuen, ezinbestez. Baina kontrolatuta egon arren, Errusiako zinemak munduko tontorra lortu zuen. Hemen, adibidez, Estatu espainolean eta Euskal Herrian, zinemako maila, batez be dokumentala, hobetu behar du. Lan egin behar dugu, kanpoan.

**ETBko koprodukzio hori zertan zetzan?**

'Errusian bizi eta hil' zeukan izena, 1936ko gerran hemendik



irtendako umeak eta Errusiara joandakoak. Euren bizitzari eta egoerari buruz. Atal bakoitza pertsonaia banari eskainita zegoen: Dolores Ibarruri, Agustin Gomez futbolaria, Margarita Ruano dantzaria, Rafael Azkona zinemagile euskalduna. Errusian hil zen. Oso famatua zen. Barakaldokoa zen eta lehen euskal dokumentalen egilea izan zen. Bazegoen gehiago. Valery Jarmalov, euskaldun baten semea, kirol idolo handia bihurtu zen Errusian. Izotz gaineko hockey jokalaria zen eta oso famatua Errusian. Hiru aldiz txapeldun olinpikoa, hamar aldiz munduko txapeldun, ... eta Bilbon, ume garaian, urte biz bizi izan zen. Moskun jaio zen eta amarekin etorri zen baina hemen urte bi eman eta gero Errusiara bueltatu zuten. Telesail hori euskaraz eta erdaraz hiru bider bota zuten. Baita Errusian ere, errusieraz.

**Eta hori egiteko hona etorri zinen ala han egin zenuen?**

Bietan. Kontaktuak eta ezagunak egin nituen hemen. Eta 1990an bizitza aldatzea pentsatu nuen. Momentu hartan nire aita eta ama hilda ziren eta familia barik nengoen, sustrai gabe, eta egoera ekonomiko eta politikoa han txarra

zenez. Krisi politiko eta ekonomiko larria izan zen urte hartan, Sobiet Batasuna desagertu eta gero. Ez hainbeste janaria lortzeko arazoengatik, baizik nik lan egiteko baizik. Zinemaren egoera oso txarra zen. Ekoitzetxeek ezin zuten laguntzarik eman. Laburmetraia eta dokumental produkzioa murriztu zen, oso. Adibidez, 'Mosfilm' 1985ean 120 laburmetraia produzitu zuen eta 1990an hiru bakarrik. Eta jendea kalera! Lan barik. Eta jende hori zerbitzari, taxistak... oso profesional onak ziren! Nik 'Orio Produkzioak' enpresarekin kontaktuak nituen. Hango ugazaba Martin Ibarbia nire lagun mina bihurtu zen eta laguntza handia eman zidan zentzu orokorrean: ekonomikoa, lana, psikologikoa, oso momentu garrantzitsuan sostengua eman zidan. Eta Martinekin egin genituen beste lan batzuk. Esate baterako, 'Nuarbe', soka tira talde famatuari buruzko dokumentala euskaraz. Gero beste lan bat egin nuen berarekin, 'Laugarren mundua', euskarari buruz. Eta nire azken lana, bukatzeaz dagoena, 'Carta a mi madre', otsailaren 7an aurkeztuko dugu Madrilan.

**Zer pasatu zitzaizun 'Laugarren mundua'rekin?**

Lan hori nire kutuna da. Baina Euskal Telebistan oso txarto ikusi zuten eta bakarrik behin eman dute. Kirol saio batek huts egin zuen eta zuloa estaltzeko sartu zuten. Eta gaztelaniaz ez dute eman.

**Euskararen gainekoa da, ezta?**

Bai. Eta lan hori ikusi eta gero Euskal Telebistako arduradunek harremana apurtu dute nirekin.

**Zergatik?**

Oso lan berezia da. Euskarari buruzkoa da eta hemen, badakizu, euskara oso kontu beroa eta politikoki oso larria da. Ikurrina bezala. Nor da momentu honetan euskararen babesle handiena? nor da babesle hoberena? Euskara beti politizatuta dago. Lan horretan, ordea, ikuspuntu berezi bat dago, politikaren gainetik dagoen ikuspuntu batetik. Kulturalki, linguistikoki, bihotzetik eginda dago. Hori

ez zitzaion gustatu. Haiek egindako enkargua da. Kasu honetan kontuan hartu behar da enkargua zein zen: euskararen fenomenoari buruz lan bat egin baina ez euskaldunentzat, erdaldunentzat baizik. Erakusteko, erakartzeko,... Orduan abstraitu behar dituzu gauza ezagunak. Kanpotarrentzat eginda badago ere, ikusi dutenek esan didate, 'ez, ez. Hemengo jendearrentzat, batez be umeentzat ezinbestekoa da'. Eta inon ez da ezagutzera eman eta ez da lerro bat ere idatzi horren gainean.

**Noiz dago eginda?**


Duela bost urte.

**Hala ere, segitzen duzu beste produkzio batzuek egiten...**

Bai, K-2000, Martin Ibarbia eta orain beste enpresa batentzat ere egin ditut lanak.

**Irakasle gisa non ibili zara?**

Etorri nintzenean Urnietan hasi nintzen. Urnietan badago



zinema eskola eta hor hasi nintzen eskolak ematen: zuzendaritza, aktoreen zuzendaritza...

**Eta gero Bilbora aldatu zinen, 'Juan de Antxieta'ra...**  
Bai. Eta orain 'Artebi'rekin hasi gara...

**Errusiaren eta Euskal Herriaren artean alde handia dago arte formazioan. Zeintzuk dira gure gabeziak?**  
Antzerki kultura oso gauza konplexua da. Hemen profesionalen formazioa ez da nahikoa. Jende gaztearentzat gauzak egin behar dira, umeentzat, ikastoletan antzerki kultura garatzeko eta ikusleak formatzeko. Ez dago ikusle formatu kopuru nahikoa antzerkirako. Kultura orokorrean badago,

Parisera joan. De la Iglesia, Urbizu, Medem, Bajo Ulloa,... hemengoak dira, baina ez dago euskal zinemarik. Laburmetraian pixka bat, dokumentala pixka bat, baina luzemetraian ez dago euskal zinema hizkuntzarik. Bide hori ez dago esploratuta. Adibidez, antzerkian badago jendea horretan saiatzen ari dena. Ander Lipus oso aditua da eta interesgarria. FTI antzerkian ez dituzte bakarrik lanak egiten: ikastaroak eman, esperimentatu eta euskal terminologia antzerkirako asmatzen dute. Hori da lehenengo urratsa. Zineman ere behar dute egin. Baina jendeak Urnietan pixka bat egiten du, hemen 'Inval'en pixka bat... baina banatuta, denak Madrilerara begira, ... Industria behar dela. Baina oraintxe dvd kamerara txiki batez posiblea da dena egitea, hemendik, etxetik.

### GALDERA LABURRAK

**Film bat:** 'Andrey Rubliov', Andrey Tarkovsky-rena.

**Liburu bat:** 'Quosque Tandem', Oteizarena.

**Kanta bat:** Bigarren mundu gerrako errusiar kanta herriko bat.

**Aktore bat:** Nire emaztea, Marina Shimanskaya.

**Ianari bat:** Arraina, lupina.

**Izen bat:** Nire amarena, Karmen.

**Toki bat:** Algortako portu zaharra.

**Antzezlan bat:** Errusian ikusten nituen asko.

**Kirol bat:** Futbola.


**Amets bat:** Nire ilobak euskaraz jakitea eta bakean bizitzea. Hemen bada, hobeto.

jendeak irakurtzen du, antzerkira doa, musika, zinema, nire ustez Estatu espainolean Euskal Herriaren kultur maila oso ona da. Baina antzerkiaren bizitza edo lana oso urrunduta dago bizitzaren errealitatek. Eta hor dago koxka. Antzerkiak ezin du jendea erakarri. Ez dago benetako loturarik. Adibidez, Santutxu oso handia da baina ez dago antzokirik, ez dago antzerki talderik, ez dago antzerkiaren beharrik. Futbola behar dute, zinema behar dute, baina antzerkia? Ez da sentitzen haren premiari. Antzerkiak ez die ematen ezer. Zergatik? Ez dagoelako loturarik. Ez dago odol jariorik bi alderdi horien artean.

**Zu noiz hasi zinen euskara ikasten?**


Orain dela hiru urte. Moskun amarekin gaztelaniaz egiten nuen. Hango euskal komunitateko euskaldunek Moskun galdu zuten euskara. Baina hemen nengoenan euskaraz jakitea ezinbestekoa zela ulertu nuen. Ezinbestekoa orokorrean. Ez bakarrik artegintzan. Baina artegintzan, edo kulturaren, literaturaren, telebistan, zineman, jendea oso despreokupatuta dago. Ez dira konturatzen. Euskal dantzak, euskal poesia, euskal kirola, euskal eskultura, ... hor dago dena. Behar duzu ikusi eta errespetua eman. Eta ez Madrilerara joan,

## Zertan gastatu dituzu edo gastatuko dituzu zure azkeneko pezetak?



UNAI  
(SANTUTXU)

Ez nituen ezer erosten gastatu, euroen truke aldatu nituen.



DABID  
(SANTUTXU)

Gozokiak erosi nituen geratzen zitzaizkidan pezetekin.



MAITE  
(SANTUTXU)

Afrikarrentzat diru-laguntza moduan eskaini nituen.



GARBINE  
(SANTUTXU)

Afrikarako botean sartu nituen azkenekoak.



TXOMIN  
(SANTUTXU)

Pintxo batzuk jan nituen nire azken pezetekin.



AITOR  
(SANTUTXU)

Aspaldi gastatu nituen. Gabon Zaharrea gastatu nituen geratzen zitzaizkidanak.



AURKEN  
(TXURDINAGA)

Oraindik baditut zenbait pezeta. Ez dakit zertan gastatuko ditudan.



NIKO  
(SANTUTXU)

Ardo bat hartu nuen nire azken pezetekin, ondo gogoratzen dut!

## Zumalakarregi eta Ravel etorbideetan semaforoak jarri dituzte

Zurbaran, Urbarri eta Begoñaren arteko harremana erraztuko dute

Testua: *Itxaso Perez*

Urtarrilaren 8an Zumalakarregi eta Maurice Ravel etorbideetan oinezkoentzako pasabideak zabaldu zituzten. Urte asko dira auzokideek horrelakoen premia agertu zutenetik, batez ere, Etxebarria lantegi zaharra zena berdegune bihurtu zutenetik.

Guztira hiru pasabide dira, denak semaforoz erregulatuta. Gauza bitxia zen, zerbait esatearren, Bilboko sarrera nagusienetarikoa batean semaforo bat ere ez egotea. Txurdinagatik (orain gutxi arte, Boluetarako errotonda zabaldu zen artean, alegia, bazegoen semaforo bat errepide horretan Txurdinagako kiroldegia iritsi baino lehen) ia Udaletxeraino, edota Errekalde zumardiraino (Salbe zubia igaro eta gero). Eta inoiz egon direnak trafikoa erregulatzea zuten helburu bakarra.

Errepide hori auzo batzuen arteko banatze lana egin du hainbat urteetan, are gehiago urterik urte trafikoa handiagotzen dela kontuan hartuta. Begoñalde, Arabella, Txurdinaga (jende asko leku debekatuetatik gurutzatzen du errepidea Santutxu aldera joateko, arrisku handiz), Zurbaran, Zurbaranbarri, Tutulu aldea, Lezamako Trenbide Zaharra, ...eta gorago dauden auzokoek lur azpiko tunelak erabili behar izan dituzte Bilboko erdialdera egiteko, "Bilbora jais-teko" askotan esaten den legez.

Azpiko pasabide horietako baten bat egoera onean egon da ia beti, baina beste batzuetatik pasatzea, barraketako "Sorginaren Treneko" tuneletik joatea baino askoz beldurgarriagoa da gaur egun ere. Hau egunez, zer esanik ez gaueko ordu txikietan (badago parranderoa ez den jendea eta goiz-goizean lanera joan behar dena ere...).

### OHITURA ALDAKETAK

Oinezkoak ohitura hartu arte fidantza hartu beharko dute aurretik. Auto gidariek astiroago gidatzen "ikasi" beharko dute eta semaforoak errespetatzen ere, ez baitira jarri trafikoa erregulatzeako soilik, eta horrek ardura handiagoa eskatzen du. Irtenbide ona eman zaio aspaldiko aldarrikapen herrikoari.



Dena den, pasabideen semaforoz gain besteren bat ere ipini dute oinezkoentzat, eta ez errepide nagusi horretan. Zurbaran eskoletako beheko aldean bat dago, eta horren erregulazioa ez omen da oso zuzena. Auzoko irteera batean dago, hainbat irteera batzen diren lekuan, eta orain arte "stop" bat egon da, baita oinezkoentzako pasabidea. Bai bata bai bestea errespetatu ohi dituzte gidariek.

Orain, semaforoa jarrita, hor gertatzen diren auto pila-tekak majoak izaten dira, eta ez dago leku handirik manio-bratzeko. Beraz, eta helburua bada (pasabidea errespetatzen dela) trafikoa arina izatea, ez litzateke hobe izango oinezkoentzat berde dagoela dar-dar egiten duen horrelako semaforo bat ipintzea? Proposamen bat da. Eta antzerako bat Begoñako Basilika aldean jarri duten azkenengo pasabidearen inguruan. Hor dago Mallona aldetik autoz datozenentzako irteera, Artaganeko autobus geltokiaren ondoren, pare-parean. Berez, irteera "zaila" da, nahikotxo denbora ematen zelako errepide nagusira atera ahal izateko. Orain, atera bezain pronto, semaforoa, eta gorri bada-go, eta autobusak badaude aurrean, hurrengo batean saiatu ateratzeko. Dar-dar egiten duten horietako bat hor, zelan?

Dena den, eskertzekoa da oinezkoek noiz edo noiz gogoratzea. Orain gogoratu behar dutena Udalekoek Txurdinaga eta Santutxu ere Bilbo direla, arazo berbera daukabela, eta ohitura arriskutsuak pasabide egoki bihurtu. Ala ez da Bilbo?

## Larreagaburura eraman nahi ditu Azkunak Aste Nagusiko kontzertuak

Gas plazako eszenatokia desagertuko da aurten bertan etxeak eta frontoiak egin behar dituztelako

Bilboko alkate Iñaki Azkunak Aste Nagusiko kontzertuak Gas plazatik Larreagaburura -Mina del Morrora- eraman nahi ditu aurten. Gauza jakina da Gas plazan ezin izango direna egin eta, ondorioz, Bilboko Udalak alternatibak aztertu ditu. Oraingoz bazter mahatsorri hori dugu alkatearen kutuna baina arazoak ere ez dira gutxi. Obretan dago, ez dago ezelango infrastrukturarik eta garraio sistema ere ez dauka egoki.

Datorren abuztuan Gas plaza obretan egongo da. Bertan Bilboko Udalak frontoiak eta etxeak egingo ditu. Bazter horren itxura zeharo aldatuko du. Lehenengo ondorioa hau da: Aste Nagusiko rock kontzertu handiak beste inora eraman behar dituzte. Galera handia da, duda barik, batetik Gas plaza toki egokia zelako eta, bestetik, Areatzako jai eremutik



hurre zegoen, ondo-ondoan.

Beste aukera batzuek baztertu ostean, Iñaki Azkuna jendaurrean agertu da azken asteotan Larreagaburu-Mina del Morrora proposamena egiteko. Orain bertan Eusko Jaurlaritzak etxeak egiten dihardu. Momentuz lehenengo fasea baino ez da hasi, goialdean egiten ari dena, Parroco Unzetaren etxe-multzoaren ondoan. Bigarrena falta da. Hori behetik, Atxuritik hasiko da eta

etorbide berriraino helduko da.

Bi fase horiek etxeak eraikitzeke asmoz egiten badira ere, hirugarrenak parke bat atontzea dauka helburu. Horretarako gaur egun mendia dena zeharo itxuraldatuko dute, aldapak murriztu eta 'Larreagaburu'ko parke gisa egokituko dute.

Asmoak asmo, kontzertuak egiteko oraindik urbanizatu bako bazter bat hartuko dute eta, behin-behineko hornidurak jarriaz musika saioak egiteko leku egokia izango delakoan daude udal arduradunak. Garraioarena arazoa izan daiteke baina ez ei daude oso urruti metro geltokiak -Bolueta eta Basarrate-. Gainera, beharrezko balitz, autobus zerbitzu bereziak jarriko lirateke jai eremutik Larreagaburu-Mina del Morrora heltzeko.

Asmo horiek, hala ere, badaukate eragozpenik. Batetik, dena garaiz egin behar da Aste Nagusian behar den bezala egokituta egoteko. Bestetik, Areatzako jai eremutik, Aste Nagusiko bihotzetik urruti samar egon daiteke Larreagaburu. Jakina, zaila da, oso, hurbil toki egokia asmatzea. Batzuek diotenez, Bilboko Udalak Manu Chaori eskaini zion, iaz, Mina del Morrora egiteko aukera baina abeslari frantsesak errefusatu zuen.

**Gelaya** INMOBILIARIA  
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...  
Iturriaga, 92  
Tfona. 94 473 07 78  
48004 SANTUTXU - Bilbo

**ADI** ASESORIA  
FISCAL - CONTABLE - LABORAL - JURIDICO - MERCANTIL  
Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net  
**Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza**

**PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!**  
**SAAK**

## Gorordo Isozakiren dorreei baietza ematekotan dago

Alkate ohiak alde bozkatuz gero 80 metroko eraikinak egiteko baimena emango du

Jose María Gorordok Urriaren 25ean Uribitarteko dorreak geldiaraztearen alde bozkatu bazuen, orain iritziz aldatzeko prest azaldu da. Izan ere, 5.000 metro karratuko lokalak lortuko balira -eta eraikitzaileak konforme daude- ICV-EHEko buruzagiak Arata Isozakik diseinatutako dorre itzel handiei baietza emango die.

Gorordoren bozka aldaketa horrek aparteko garrantzia dauka. Batetik, EAJ-EAk eta PSOEek 400 etxebizitza bilduko dituzten etxe-orratzak egiteko proiektua babestu dute hasieratik bertatik. Bestetik, Batasunak eta Ezker Batuak kontra egin diote, azken garaiotan PP ere jarrera horretan dagoela. Bi blokeon indarrak parekatuta daude Bilboko Udalean eta ICVren zinegotzi bien bozkek erabakigarriak dira.

Kontu jakina da ICV EAJ-EArekin batera gobernatzen duena Bilboko Udalean. Tramitazioan Jose María Gorordok alde egin ohi zuen puntu horretan botorik ez ematearren. Bere kide Andoni Rekagorrik, oster, EAJ-EArekin eta PSOE-rekin batera azaldu izan da beti dorreen alde. Hala ere, Urriaren 25ean sorpresa galanta eman zuten biek hala biek kontra bozkatu zuten eta.

Harrez gero, hala ere, gauzak aldatu dira eta Jose María Gorordo azken asteotan Uribitarteko dorreei baietz esateko prest agertu da. Zertan datza bere jarrera aldaketa? Alkate ohiak dioenez, eraikitzaileek -Vizcaina de Edificaciones



enpresak- 2.000 metro karratuko lokalak emango dizkiote Bilboko Udalari. Hala eginez gero, bere taldeak proiektuaren alde bozkatuko du udal batzar osora azaltzen den hurrengoan.


Uribitarte izena azken hamahiru urteotan polemikari lotuta egon da. 1989an Bilboko Udalak -Gorordo alkatea zela- kalifikazio aldaketa egin zuen PSOE-ren inguruko enpresa baten mesedetan. Zalaparta handia eragin bazuen ere, burrunba handiagoa izan zen handik gutxira, enpresa horrek porrot egin eta akziodun askoren sosak desagertu zirenean.

Geroztik jokaldi espekulaziozale horretan kaltetutakoek hainbat bider ahalegindu dira Udalak berriz ere kalifikazioa alda dezan. Hasierako plana zen industria zena -Deposito Franco zaharra- bulego eta merkatal-gune bihurtzea. Orain etxebizitzak eraiki nahi dituzte. Laurehun etxebizitza etxe itzel altuetan. Garaienak 80 metro altu edukiko du, ondoan dagoen Albia eraikina baino 16 metro gehiago.

Proiektuak ospe handiko sinadura darama azpian: Arata Isozaki arkitekto japoniarra. Hala ere, hala Abandoko nola Begoñabarrako auzoak kontra agertu dira eta proiektu hori behin betiko bertan behera utz dezatela eskatu dute. Jose María Gorordoren iritziz aldaketa ere gogor astindu dute, proiektuaren sustatzailea dela esanez eta hauteskunde egunean gogoan edukiko dutela ziurtatuaz.



**TXURDINAGAKO AUZOEK 13. AUTOBUS LERROAREN ALDE.** Bilboko Udalak apiriletik aurrera Bilbobus en egin nahi dituen aldaketetako bat 13. lerroa kentzea da. Haren orde 48, 38 eta 10 indartuko dute. Ideia hori ez da izan auzoen gustuko eta asko izan dira Udalera jo dutenak aldaketa hori bertan behera utz dezan eskatzeko.



Santo Rosario, 1 (Santutxu)  
Tif.: 94 473 10 65



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

## Txurdinagako orube bi urbanizatuko ditu Bilboko Udalak

Txurdinagako Birjinetxe eskola ondoko landa eta Arbidea kalearen zati bat urbanizatu eta plaza gisa atonduko ditu Bilboko Udalak datozen asteetan. Bi eremuak alperrik galduta egon dira orain arte.

Birjinetxe eskola ondoko orubea plaza bihurtuko dute. Txurdinaga-Otxarkoagako barruti kontseiluak bertan kirola eta ariketa fisikoak egiteko pista bat egokitzea erabaki du. Pista amerikarretan bezalaxe, bertatik ibiliko direnak gorputza lantzeko eta jagoteko probak egiteko parada edukiko dute. Gainera, jesarlekuak eta espazio libreak atonduko dituzte bertan.

Guztira Birjinetxen egin beharreko obrak bost hilabeteko epea eskatzen du. Lanak urtarrean hastekoak ziren. Plaza berria egokitze 88 milioi pezeta gastatuko du Bilboko Udalak.

Arbidea kalean, oster, mila metro karratu baino ez dira plaza gisa atonduko direnak. Triangelu itxura dauka, egun, orube horrek eta, Birjinetxekoa legez, alperrik galduta egon da azken urteotan. Bertan oinez ibiltzeko pasealekua egokituko dute. Ibilbideak kolorez eta zoruko harri diferentz hornituko dituzte, zentzumenak kaltetuta dauzkatenak ere bertatik lasai asko ibil daitezten.

Guztira Arbideako lan hori egiteko 40 milioi pezeta gastatuko du Udalak. Zazpi aste beharko ditu obra hori amaitzeko eta, gauzak ondo, otsailean dira hastekoak.

### OBRA GEHIAGO

Txurdinaga-Otxarkoagako barruti-kontseiluak aurten

Horretaz gain, udal asmoen artean Jesus Galindez etorbideko espaloiak zabalago egitea eta Txurdinagako parkean hobekuntza lanak hastea daude.



egin nahi dituen obra zerrenda ez da bi horiekin agortzen. Izan ere, Jesus Galindez etorbideko espaloiak -650 metro luze- zabalago egin nahi dituzte, bertatik oinez doazenen ibilera erosoago izan dadin. Obra horrek 15 milioi pezeta aurrekontua dauka.

Eta Europa parkean -Txurdinagako parkea, hain zuzen- aldaketak ere egiteko asmoa dute. Besteak beste, gaur egungo aska berritu nahi dute urez betetzeko eta husteko lanak errazagoak izan daitezten.

### Uribarrin zarama oraindik ere oztopo Auzo Elkarteak Bilboko Udalarekin batu nahi du zerbitzuan aldaketak zelan sartu zehazteko

Testua: Itxaso Perez

Edozein arratsaldetako irudia izan daiteke gure kaleetan zarama espaloian metatuta bidea oztopatzen. Horrelako arazoa behin betiko desagertu dadin proposamena helarazi dio Uribarriko Gure Etxea auzokideen elkarteak Bilboko Udalari, bertako auzokide eta dendarien eskaerari erantzunez.

Auzokideen arazoak zeintzuk diren argi dago. Merkatariek badute gehiago. Hauen iritziz, Uribarriko denda gehienak txikiak izanik eta etxebizitzak behetako solairutik hasten direnez, zarama ontziek dendetako eskaparateak ikusterakoan traba egiten dute. Baita espaloietan ibiltzean ere eta askotan zaramari hats larregi dariolako. Gainera, Uribarrikoak oso kale estuak dira, gehien bat.


Auzo Elkarteak hiriko zarama jasotzeko zerbitzu osoaren berplanteamendua beharra defendatzen du. Zer pentsatu beharko lukete sakonago? Ontziak non jarri eta, ahal den heinean, edukiontzia horiek lur azpiko zelan bihurtu, Bilboko auzo batzuetan iada egin den lez.



Gure Etxea auzo elkarteak Bilboko Udaleko zarama zerbitzuekin jarrera amankomun bat adosteko hitz egiteko prestutasuna agertu du, danon interesen arabera irtenbidea bilatu ahal izateko.

# OTSAILAREN 18AN ZABALDUKO DA AURREMATRIKULAZIO EPEA

*Bi aste izango dira bi eta hiru urteko umeen izena eskolan eman ahal izateko*



*Azken urteetako joerari eutsiaz, aurten ere aurrematrikulazio kanpaina otsailari lotuko zaio. Datorren urtean lehenengoz eskolara joan behar duten umeen gurasoek ikastetxea hautatu behar dute. Kasu gehienetan behin betiko ikastegia izango da euren seme-alabentzat. Zeintzuk izaten dira irizpideak? Irakaskuntzaren kalitatea eta ikastetxearen filosofia. Eta, jakina, hizkuntza, euskara urterik urte gero eta nagusiagoa da eta.*

**Testua: L. Alvarez**

Otsailaren 18an hasiko da datorren urtean eskolara lehenengoz joango diren umeen aurrematrikulazio kanpaina. Aita-amek bi aste epea edukiko dute euren erabakia hartzeko. Gurean aukera zabalak daude, hala eskola publikoan nola pribatuan. Normalean gurasoek gehien baloratzen dituzten irizpideak dira kalitatea, ikastetxea etetik hurre egotea eta, jakina, hizkuntza.

Hala ere, laster batean hizkuntzarena aipatuko ez den kontua izango ote den pentsatzen hasita gaude. Azken urteetako joerak argi eta garbi erakusten du erdarazko irakaskuntza gainbehera datorrela. Oraintsu arte jaun eta jabe izan dena

orain galzorian dago, noiz desagertuko zain. Iaz, esate baterako, ume mahatsorrien %9 baino ez zen A ereduko lerroetan sartu (erdara hutsez).

Beraz, hizkuntzaren kasuan guraso gehienek B eta D ereduen artean aukeratzen dute. Eta lehia horretan eredurik euskaldunena -D, euskara hutsez- gailentzen da. Urterik urte D eredia gurean gorantz doa hala irakaskuntza publikoan nola pribatuan. Iaz hiru urteko ume mahatsorrien %52 D ereduan sartu zen. B eredukoak, ostera, %39 izan ziren eta azken urteotan ohi den legez, matrikula apurka-apurka beherantz doa.

Datu hauek hobeto ulertzeko iazko egoera zein

zen gogora ekarri behar dugu. Izan ere, artean euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren aurkako eraso larriak egin zituzten indar espainolstek behin eta berriz. Historiaren akademia espainolaren txosten famatua aipatzea besterik ez dago. Erasoak eraso, guraso mahatsorrien hautua, beste behin, oso argia izan zen: euskara hutsezko irakaskuntza.

### PUBLIKO/PRIBATUA

Badira, hala ere, kontu gehiago aurrematrikulazio aldietan. Esate baterako, iaz, eskola publikoak matrikula berrien %42.2 eraman zuen gurean. Gainerakoak ikastetxe pribatuentzat izan ziren. Hala ere, datu horrek xeheatasunik eskatzen du. Izan ere, gurean asko dira ikastetxe pribatuak -gehien-gehienak erlijioitsuak- eta euretarik batzuek Bilboko beste bazter batzuetako ikasleak bereganatzen dituzte.

Gure artean euskara hutsez (D eredia) aritzen diren ikastegiak honako hauek dira: Kirikiño (Txurdinaga), Artxandape (Uribarri), Abusu (Bolueta eta Abusu artean), eta Begoñazpi (Txurdinaga) ikastolak, denak sare publikotik kanpo. Lehenengo hiruak Ikastolen Konfederazioko partaide dira eta laugarrena, berriz, Elizarena da. Azken horrek hezkuntza prozesua bizkaieraz egiten du. Berrio-txoa eta El Salvador ikastetxeek ere D eredia eskaintzen dute.



Irakaskuntza publikoan oraindik ugariagoak dira D ereduko aukerak: Karmelo ikastola (Santutxu), Txurdinaga, Birjinetxe (Txurdinaga), Goya (Otxarkoaga), Luis Briñas (Santutxu), Uribarri, Zurbaran eta Zurbaranbarri eskolak.

## hartu bertón etxean!!!

**Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertón aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo**

**Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.**

Izena: .....  
 Abizenak: .....  
 Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....  
 Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....  
 Telefonoa: .....  
 Bankua: .....  
 Kontu zenbakia (20 digito): .....

**DOHAIN**

Sinadura

A R T I K U L O G O R R I

E H T I K U L O G O R R I

# MIKEL ALVAREZ, ANTARKTIDAN

Testua: *Unai Cuevas*

Iruñean bizi den Mikel Alvarez Otxarkoagako semea Antarktidako Vinson (4.897) gailurra zapaldu zuen urtarrilaren 21ean. Mendizale mahatsorria goizeko zortzietan heldu zen tontorrera, igoera luze baten ostean. Bidean 55 gradu zero azpiko hozberoa jasan behar izan zuen.

Mikel Alvarezek berak Antarktidatik jakinarazi duenez, igoera pentsatu baino zailago suertatu zitzaion. "Egia esanda, Estatu espainoleko oso mendizale gutxi igo du Vinson mendia eta, ondorioz, ez dut eduki oso informazio zehatza". Hala ere helburua lortuta dago eta orain Txilerantz abiatu da hango beste gailur bat igotzeko asmoz.

Antarktidako mendirik altuenerako bidaia, urtarrilaren 6an hasi zuen. "Munduko zazpi gailurren" erronkaren barnekoatzen da. Honela, Vinson igo ondoren, Indonesiako dagoen Cartenz-eko Piramidean igotzea geratuko zaio soilik lurreko kontinente bakoitzeko mendirik altuenak igota egoteko. Orain dela gutxi, gailur hori igotzeko ahalegina egin zuen Alvarezek baina, arazo burokratikoak zirela medio, asmoa bertan behera utzi behar izan zuen.


Orain arte, mahatsorriak, Aconcagua (Argentina), 6.959 metrokoa, 1997an; Elbrus (Errusia eta Georgia artean), 5.642 metrokoa, 1998an; Kilimanjaro (Kenia), 5.895 metrokoa, 1999an; McKinley-Denali (Alaska), 6.194 metrokoa, 2000n; eta Everest (Nepal), 8.848 metrokoa, joan den urteko maiztaren 23an igo ditu.

Joan aurretik "arrakasta lortzearen portzentaia altua da. Hala ere, jakin beharra dago Vinson teknikoki zaila den gailur bat ez bada ere, leku oso urrunean eta tenperatura oso baxuetan lan egin behar dela", aipatu zuen Alvarezek. Gainera, gogoratu beharra dago, Vinson igotzea oso proiektu garestia dela, izan ere, 30.000 euro (5 milioi pezeta) ordaindu beharra dago.

### LEHENAK, ESTATUBATUARRAK

Antarktidako gailurrik altuenera 1966an heldu ziren lehen aldiz. Mendizale estatubatuarrez osatutako talde bat izan zen hain zuzen ere, marinako ontzi batek aurkitu eta zazpi urte beranduago. Mendiaren izena Carl G. Binson Georgiako (EEBB) politikari baten omenez jarri zioten, gai hauekin oso konpometiturik baitzegoen.

Antarktidako txangoaren ostean, Euskal Herrira itzuli aurretik, Carlos Garcia eskalatzaile nafarrarekin batera Argentinako Patagonian dagoen Fitzroy gailurra igotzen ahaleginduko da. Hala ere, Garciak, Otxarkoagakoarekin bat egin aurretik beste saiakera bat egingo du. Gauzak ondo, apirillean abiatuko da berriro ere Mikel Alva-



rez Papua aldera, Cartenzen piramidean igotzeko eta behingoz erronka gaitz hori gainditzeko.

### SANTUTXU H.T. IGOERAKO PROMOZIOTIK URRUN

*Unai Cuevas*

Iruñeako Bradol San Antonioren aurka etxean galdu ostean (4-5) Santutxuko Hockey Taldeak atzarapausu bat eman du igoerako promozioan sartzeko ahaleginean. Garaipen honekin, iruñearrak, igoerako faserako txartela ematen duen bigarren tokian berrindatu dira, izan ere, Ipar Ligan hirugarren diren santutxutarek baino sei punt gehiago dituzte.

Bradolek, lehen zatian, errenta nabarmena lortu zuen (0-3) eta nahiz eta mahatserriko taldeak erreakzionatu ezin izan zion emaitzari buelta eman.

Hamargarren jardunaldia jokatu ostean, Santanderreko Tenis taldea zegoen lidergoan.

**Garraioak**



Deitu:  
Jabi: 607 43 17 91  
Txema: 607 19 68 33

**Sugea taberna**



Iturriaga, 92 Santutxu

**BASTERTXU**



**TABERNA**  
Ricardo Bastida plaza

# ALBERTIA (868 M) LEGUTIANOtik


Bilbotik Gasteizera doan errepide nagusitik Barazar mendatea igarota, Ubide herria zeharkatuko dugu Legutiano herrira heltzeko. Han eliza ondoan utzi genuen autoa (A). Ikastola eta eliza artean sartuta, zementuzko bide estu batetik joango gara Santa Engrazia urtegira heltzeko; han, alboetan, burdinazko hesiak dituen zubi txiki bat pasatu ondoren bidegurutze batera helduko gara. Handik, baserri bakarti baten ondotik doan pistatik jarraituko dugu, hiru abere-gordeleku dauden tokira heldu arte (B).

Hara heldu baino pixka bat lehenago eta eskumarantz ateratzen den basabideari jaramonik egin gabe, gure basabidea zuzen eta gorantz doa, baina laster eskuin aldetik irteten den beste basabide batetik abiatu beharko dugu, burdinazko ate handi batekin topo egin arte.

Handik aurrera bi aukera ditugu:

Lehena, hain ezaguna ez dena: Atea gurutzatu bezain laster ezker aldetik irteten den bidexkatik igongo gara haritz artean; gero, bigarren aukeran aipatuko dugun basabide nagusia aurkituko dugu.

Bigarrena, eta guk egin genuena: luzeagoa baina erosoagoa da. Lehen aipatu dugun atea igarota, basabide berberetik jarraituz, oso eroso ibiliko gara hariztian zehar, hau amaitu arte (C). Han etorritako bidea jarraituko dugu beheko zuhaitzi gaztea eta pinudi txiki bat bistan ditugula. Han, ezkerretara eta gorantz doan basabide zabal batetik igongo gara, eta ia amaituta dagoenean lehen aukeran aipatu dugun bidexkarekin elkartuko gara. Goialdera heltzean basabidea eta hariztia amaitzen direla ikusiko dugu, bertan dagoen pagadi ederrean sartuko gara (D). Pagadira sartu bezain laster, eskuin aldean, ikur antzera dagoen harri pilo bat (CAIRN) ikusiko dugu eta hortik zeharkatuko dugu pagadi hau. Amaitzen denean txilardegi batean sartuko gara eta bidexka berberetik bostehun metro inguru jarraituz, ezkerretara jo eta laster tontorra (868 m.) zapalduko dugu.



**JAKINGARRIAK**

Guztira ordubete eman genuen. Tontorrean txartel kutxa, erpin geodesikoa eta gudan hildako gudarien oroimenez eraikitako oroitarria ikus daitezke, baita bonbak eragindako lur-baki batzuen aztarnak ere.

## JABI CALLEK LIBURU BATEAN BILDU DITU BERE LANIK GOGOKOENAK

'Todo y pronto' bilduman hogeita hamabi ipuin eta nobela labur bat sartu du

Jabi Callek 'Todo y pronto' narrazio liburua kaleratu berri du. Hirugarren argitalpena du, oraingo hori. Hogeita hamabi ipuin eta nobela labur bat biltzen dira bertan, David Menéndez marrazkien ondoan. Orain arteko bere uztako alerik preziatuena. Jabi Calle arlo askotan saiatutako gizona dugu: irratia, telebista, zinea, literatura... Santutxutar idazle honekin hitz egin dugu bere azken lana sakonago ezagutzeko asmoz.

Testua: H.Ortega

Irratietan gidoigile, telebistan aurkezle eta solaskide, zinean film laburren zuzendari eta literatura hiru libururen egile dugu Jabi Calle mahatsorria. Azkena, duela gutxi argitaratutako 'Todo y pronto' narrazio bilduma.

Zer dago 'Todo y pronto' liburuan?

Batez ere kontakizun laburrak. Ia denak irratirako pentsatutakoak dira. Hainbat irratitan irakurri izan dira eta horregatik labur-laburrak dira, bost minutukoak. Gainera gehienetan Bilbo agertzen da eszenatoki gisa. Salbuespen pare bat dago, bat Segovian kokatuta dagoelako eta beste bat Palman.

Zer motako narrazioak dira?

Kontatzekoak dira. Pertsonaia gutxi daukate, irratian ezin duzulako asko sartu. Baina sentiberak dira, umoretsuak. Sentsazio eta zentzumenekin jolastu nahi izan dit, irakurleak entzun, ikus eta usain dezan.

Ba al dago liburuko istorioen arteko loturarik?

Ez. Historia bakoitza hasi eta amaitu egiten dut. Eta kito. Hurrengoak ez dauka aurrekoarekin zerkusirik.

Zelan hautatu dituzu?

Kontakizun batzuk berriak dira eta beste batzuk, osera, aspaldikoak. Aurreko liburuekin ez bezala, oraingo honetan argitaratzeko prozesu osoan murgildu naiz. Eta azkenean sartu nahi izan dugu Jabi Calleren guztia. Hortik dator izenburuko 'Todo' hori. Horretarako aurreko liburuetatik ere istorio batzuk hartu ditugu. Eta tituluaren esanahia, hortaz, bikoitza da. Jabi Calleren guztia batetik eta, bestetik, gaur egungo bizimoduaren isla: dena eta bizkor.

Marrazkiak ere badira liburuan...

Bai. Nik liburu mota zehatz bat nahi nuen. Ez nuen gura 2.000 pezeta baino gehiagokoa izatea, letra mota jakin bat aukeratu nuen eta, aurrekoetan bezala, marrazkiak nahi nituen. Liburukoak David Menéndez artista gazteak egin ditu. Orain bere lanak San Frantzisko auzoan erakusten ditu 'Todo y pronto' izenburupean. Bilboko auzoetara eramango dugu erakusketa hori.

Eta zein da nobela laburren pisua liburuan?

Batez ere nire buruari bost folio baino gehiago ganoraz idazteko gauza naizela erakutsi nahi nion. Irratirako testuetan ez bezala, pertsonaia gehiagorekin eta elkarrizketekin istorio



bat osatu. Hala ere, nobela laburra irratian girotuta dago.

Norentzat idatzi duzu 'Todo y pronto'?

Espiritu gaztedun jendearentzat. Irakurterraza, atsegina, umoretsua eta ondo pasatzeko modukoa da. Nire kezka da jendearengana hel dadila. Horregatik, liburutegietan egon dadin ahalegindu naiz.

Webgunea duzu -<http://on.to/todaypronto>- eta cd bat kaleratu behar ei duzu...

Badago bat. Hor istorioak nik irakurtzen ditut eta Carlos Creatorren musikak girotzen ditu. Carlos Creator oso musikari handia da. Hala ere, hemen ez da bere lana behar beste baloratu. Orain beste ideia bat darabilgu: pertsonaiei ahotsak jartzea eta musikaz laguntzea. Aurkezpenean, esate baterako, Aitor Mazo aktoreak ipuin bat irakurri zuen Kepa Junkerak trikitiaz laguntzen zuen bitartean. Egin nahi dugu. Ez dakit liburuaren hurrengo edizioarekin batera edo aparte.

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Urtzi Urrutikoetxea  
"Mugitzea, literatura irratian ditut kolaboratzaileak"  
Urtziaren karmine berria

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Miren Agur Meabe  
"Euskal literatura aniztasuna eta maila altua dago"

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Eladio Mortei,  
Otxarkoagako abesbatzaren zuzendaria

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Mikel Alvarez,  
mahatsorri bat Etxeresteke tontorrean

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Imanol Agirre:  
"Badut nobelari txapela janzitako esperantzak"

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Urtzi Urrutikoetxea  
Nobela berria

# bertan

## MAHATSERRIKO ALDIZKARIA hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....

Abizenak: .....

Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....

Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....

Telefonoa: .....

Bankua: .....

Kontu zenbakia (20 digito): .....

DOHAIN

Sinadura

# horoskopoa

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.  
Laga egizu erretolika hori eta joan zaitetz behingoz mai-teagana. Ez jatzu damutuko.
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.  
Gasta eta gasta zabilz azkenaldion. Non itzi dozu zeure burugogorkeria mitikoa?
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.  
Aratuste aroa dator. Mozorrotuta askoz be errezago ligauko dozu. Batez be arpegia estalita bazoaz.
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.  
Arraiua! Non ikasi dozuz horreik berba zantarrok?
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.  
Euroak dagozanetik ez dakizu zer edaten dozun eta zenbat gastetan dozun. Hoba dozu dolarrakaz ibiltzea!
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.  
Zarataka hasi baino arinago entzun egizu jenteak esan behar deutsuna.
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.  
Abadearen sermoia entzuten aspaldian itzi zenduen. Zertan zabilz ba, gaur, neurea adituten?
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.  
Mozoilo baten moduan zagoz arbol bateko abarrean pausatuta. Egunen batean zeozer egin beharko da, ezta?
- Sagitaris:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.  
Hurrengoan, uretara zoazenean, txonbo egin baino arinago, jantzi bainujantzia eta beittu uraren temperatura zein dan. Zezeilan gagoz, lagun!
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.  
Txakurren putzetan bialduko doguzanean enteratuko dira. Ez dozu uste?
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.  
Ganora gitxi dagoan tokietan gauza onik ez. Hoba dozu kantatzea debekatuta dekon taberna horretatik arrapaladan urtetea!
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.  
Jakingo ete dozu inoiz zergaitik jenteak ez deustu kasurik egiten? Itzi egizuz koplra horiek eta aurrera!

# agenda

**OTSAILAREN 2:**  
SANTA AGEDA ESKEA.  
GOIZEKO 10ETAN HASIKO DA  
GARAIZARKO PLAZAN. GERO  
BASERRIRIK-BASERRI.  
BAZKARIA JOSETXU  
TABERNAN.

**OTSAILAREN 2-3:**  
DEUSTUKO INAUTERIAK.

**OTSAILAREN 3:**  
MENDI IRTEERA. CRUZ DEL  
CASTILLO. ARABAKO  
LAGRANETIK. EGUKI LOREA  
MENDI TALDEA.

**OTSAILAREN 7:**  
TRIKIBERTSO. BILBOROCK.

**OTSAILAREN 8-10:**  
BILBOKO INAUTERIAK.

**OTSAILAREN 13:**  
KIRMEN URIBEREN  
'BITARTEAN HELDU ESKUTIK'  
LIBURUAREN AURKEZPENEA.  
KAFE ANTZOKIA.  
ARRATSALDEKO 8ETAN.

**OTSAILAREN 14:**  
TRIKIBERTSO. BILBOROCK.

**OTSAILAREN 14:**  
KEN7 ETA BANATEUANBA.  
KONTZERTUA. KAFE  
ANTZOKIA. GAUEKO 10ETAN.

**OTSAILAREN 15-17:**  
SANTUTXUKO INAUTERIAK.

**OTSAILAREN 21:**  
JOSEBA TAPIA.  
KAFE ANTZOKIAN.  
ARRATSALDEKO 8,30ETAN.

**MARTXOAK 3:**  
MENDI IRTEERA.  
ANBOTO. EGUZKI LORE  
MENDI TALDEA.

